

3. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

- 1. ZATIA. **Gaia** azaldu eta iritzia eman (5´)

(5 minutu
azterketari
bakoitzak)

**Guztira 10 bat
minutu**

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

A

ESKOLAKO ORDUTEGIAK: EGOKIAK DIRA HAURRENTZAT? ETA GURASOENTZAT?

"Hiru urteko haur batentzat **eskola ordutegia** hiru ordukoa bada, baina hiru ordu horiek eserita ematen baditu eta komunera irakasleak agintzen duenean joan behar badu, eskola ordutegiak ez die haur horren beharrei erantzuten, denbora tarte hori jasanezina izango zaiolako. Aitzitik, adin bereko haur batentzat sei edo zazpi orduko eskola ordutegia egokia izan daiteke, eskolak haur horren behar fisiologikoak aurreikusten baditu: adi egoteko denbora, etenaldiak, loa, jana, espazioa, komunera joan beharra...bai eta behar psikologikoak ere, hala nola helduen erreferentearen beharra, familiarekiko loturaren beharra, adinaren araberako ikaskide kopuru egokia... Azaldu berri dudan adibide hau adin guztietarako izan daiteke baliagarri.

Nolanahi ere, hausnarketa ildo honetan sakondu daiteke, eta ziur aski iritzi kontrajarriak aurkituko ditugu gai honen inguruan. Dena dela, ondorio gisa, erranen nuke **guraso eta haurren ordutegiak osagarriak izan daitezkeela eta eskolak gizartearen aldaketetara eta horiek berez ekartzen dituzten beharretara moldatzeko malgutasuna behar lukeela.**"
Alazne Petuya Seaskako arduradun pedagogikoa.



1 A

Gaia prestatzeko:

Zer dio Seaskako arduradunak?

Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

-Egokiak iruditzen zaizkizu eskolako ordutegiak haurrentzat/gazteentzat/gurasoentzat?

-Zer proposatuko zenuke egoera hobetzeko?

(**beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu**)

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa deialdia: **2008ko ekaina**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

3. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

- 1. ZATIA. **Gaia** azaldu eta iritzia eman (5´)

(5 minutu
azterketari
bakoitzak)

**Guztira 10 bat
minutu**

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

B

Gaur egun ez omen da irakurtzen....



“**Ez omen da irakurtzen**; belaunaldi berriek letrak zokoratu omen dituzte eta teknologia berriak lehenetsi; irakurketak ez omen du esperantzarik. Atzo ere aspertzera inoiz entzun genituen horrelakoak. Ez da, ordea, egia: inoiz baino gehiago irakurtzen da. Eskolan, kalean nahiz sarean, letraz beteta dauzkagu kale-kantoi guztiak, letra barreiatua dago bizitzaren eremu guztietan; generoak eta situazioak ugaritu zaizkio letrari; letrarik gabeko zirrikitu gutxi ikusiko duzu bazterretan. Sarbide gero eta oparoagoak ditugu beste hizkuntzetako letretara iristeko ere.

Orduan, zer? Gezurretan ari gara?

Neurri batean, bakarrik, **irakurketa aipatzen dugunean, liburuez ari gara: irakurketaren formatu bakarra liburua balitz bezala hitz egiten dugu, eta hortik sortzen da nahasmena.**”

Anjel Lertxundi (idazlea)



1 B

Zer dio Anjel Lertxundik?

Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

-Zure ustez gaur egun lehen baino gehiago irakurtzen da? Gutxiago?

-Zein dira irakurtzeko ohiturak gaur egun?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

A

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa deialdia: **2008ko ekaina**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

3. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

- 1. ZATIA. Gaia azaldu eta iritzia eman (5´)

(5 minutu
azterketari
bakoitzak)

**Guztira 10 bat
minutu**

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

BAZTERTU DEZAKETE LIBURU ELEKTRIKOEK LIBURU TRADIZIONALA?

Pruden Gartzia

(Azkue Bibliotekako zuzendaria)

Gaur eta hemen esan dezakegu epe erdira papera ez dela desagertuko, eta hala balitz, haren desagerpenak zerikusi handiagoa izango du munduko oihanak galtzarekin ordenagailuekin baino.



Kirmen Uribe

(Idazlea)

Ez dut uste liburua desagertuko denik, eta hala balitz ere, bestelako irakurketa modu atseginago bat lortuko delako izango da. Edukia da muntazkoa eta ez zer modutan helden zaion irakurleari. Esan nahi dut liburuetan agertzen dena beste era batera agertzeak ez duela azkenean garrantzi handiegirik. Nire aburuz, benetako arazoa liburuan baino liburuaren beraren merkaturatze-moduetan datza.



2 A

-Zer diote elkarrizketatuek?

-Noren ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

-Zer diozu liburu elektronikoaz? Zein dira abantailak eta desabantailak?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa deialdia: **2008ko ekaina**

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ADIBIDEA

2. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

A

3. MAILA

HABE
75

Gaia: **JAKI TRANSGENIKOAK BAI!**



Elkarrizketa bideratzeko:

Munduko **eskaerari** aurre egiteko aukera.

Denoi jaten emateko asko behar da.

Uztak ziurtatzeko modua da, bestela urte osoan lanean edozer huskeriarengatik uzta galduko litzateke.

Jakien prezioen igoera nabarmena egon bada, zer gertatuko litzateke transgenikorik ez balego?

10 A

HABE

B

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ADIBIDEA

2. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

3. MAILA

Gaia: JAKI TRANSGENIKOAK EZ, ESKERRIK ASKO!

HABE
25



Elkarrizketa bideratzeko:

Lurrean eta animaliengan **nolako eragina izango duen ez dago jakiterik.**

Ez dakigu **zer jaten dugun.**

Gaixotasun berriak agertuko dira.

Gure geneetan nolako eragina izango duen ez dakigu.

10B